

Hizkuntza Politikaren Plan Estrategikoa (2016-2019) Partaidetza Prozesua

Bilera-mota	Lurralde-bilera
Eguna	2016-10-26
Ordua	17:00-19:00
Lekua	Lizarra, Fray Diego Lizarrakoa kultur etxea

Bertaratutakoak	
Laura Etxeberria Torrecilla (Antzingo zinegotzia)	Susana Bidarte Andueza (AEK)
Unai Errazkin Peña (Lizarrako zinegotzia)	Alfredo Dufur Otheguy (Irantzu Mankomunitateko euskara teknikaria)
Regino Etxabe Diaz (Lizarrako zinegotzia)	Iratxe Arana Balerdi (Kabredoko zinegotzia)
Koldo Colomo Castro (Garesko euskara teknikaria)	Arantza Fernandez Cayetano (Kabredoko Alkatea)
Lur Albizu Etxetxipia (Izarbeibarko Mankomunitateko euskara teknikaria)	Josu Sueskun Cabases (Lizarra ikastola)
Inma Torrecilla (Bargotako zinegotzia)	Maidier Etxaniz Olariaga (Lizarra ikastola)
Txaro Etxetxipia (Irakaslea)	Kiko Escobar Martinez (Lizarrako euskara teknikaria)

Euskarabidetik: Esther Mugertza

Elhuyarretik: Idoia Aldekoa

Gai zerrenda
- Ongietorria - Elkar ezagutzea - Plan Estrategikoaren hasierako idatzaldia aurkeztea - Lanketa: talde-lana - Balorazioa eta agurra

Bileran egindakoa

Lizarrako zinegotzia den Unai Errazkinek ongietorria egin du eta elkar ezagutzeko izen-erronda bat egin dugu. Esther Mugerzak, Euskarabideako teknikariak, Plan Estrategikoaren prozesuaren nondik norakoak eta Planaren markoa azaldu du eta ondoren, Elhuyarreko teknikaria den Idoia Aldekoari eman dio hitza, planaren helburuak aurkezteko. Aurkezpena egin bitartean, parte-hartzaileek lanketa-fitxa izan dute eskuartean oharrak jasotzeko. Lanketa-fitxak honakoa jasotzen zuen: *Erantsiko nuke.../ Zalantza eragiten dit.*

Aurkezpenaren ondoren, talde txikiak egin ditugu eta galdera hauen inguruan jardun dugu lanean:

- Zerbait erantsiko zenuke? Zerbait faltan bota duzue?
- Zerbait zabalantza eragin dizue?



Ondoren, talde handian konpartitu dugu talde txikietan hausnartutakoa.

Saioa bukatzeko, balorazioa egin dugu eta hurrengo urratsak zein izango diren gogoratu ditugu.

Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Erantsitakoak edo azpimarratzekoak diren alderdiak:

Hezkuntza:

- LHN eskaintza nabarmenki handitzea beharrezkoa da.
- NUPeko Irakaskuntza Masterrean oraindik ez dago Euskal Hizkuntza eta Literatura espezialitatea; beharrezkoa da eta ekarpen handia egingen luke hezkuntza esparruan.
- Irakasleen zerrenda bakarra eratzea (hizkuntza eskubideak)
- Bigarren Hezkuntzan filologoa izan behar izatea (edo lehentasuna izatea) zerrendak osatzerakoan, gaztelaniarekin pareka dadin.
- NUPeko euskararen eskaintza eskasa da, ingelesa esponentzialki igotzen den bitartean. Ikasketak osorik euskaraz bermatzea ezinbestekoa.
- D ereduak non eman ongi planifikatzea eta D eredukoak bakarrik diren ikastetxeak mantentzea.
- D ereduak kanpaina eta inbertsio handiak behar ditu eremu ez euskaldunean.
- Nafarroako Gobernuak literatur lehiaketa berreskuratu
- Soziolinguistika Masterra ikasketak bultzatu behar dira.
- Euskara irakasleak formatu behar dira soziolinguistikan.
- Helduen euskalduntzea doan izateko pausuak ematea.

Hedabideak:

- Hedabideei dagokionez, erdarazko hedabideak euskara gehiago erabiltzea egoki, beti ere euskarazkoei kalterik egiten ez badie.
- Nafar telebistak potentziala zuen. Irtenbiderik?
- Xaloea, ETB3, Hamaika... nola sustatu? Nola eragin kontsumoa?
- ETB/ETB3 Nafarroa osoan ezinbestekoa da.
- Umeak eta gazteak lehenetsi

Hizkuntza-paisaia:

- Hizkuntza-paisaia aldatzea estrategikoa da, baita eremu ez euskaldunean ere.

Prestigioa:

- Prestigioa lortzeko, diru-laguntzetan hizkuntza-irizpideak txertatu, diru-laguntza lortzeko eragileek ele bietara egin behar izatea.
- Prestigioa irabazteko, politikarien agerpen publikoak eredugarri izan behar dira eta euskararen erabilera bermatu.
- Lanpostuen eskaintza euskaraz eta aldeketasuna bultzatzeko motibazio funtzionalean sakondu (lanerako ikuspegi pragmatikoa)

Administrazioa:

- Zeharkakotasuna interesgarria. Departamentuen arteko elkarlana (batez ere Hezkuntzarekin)

eta kontrako jarrerak neutralizatzeko egokia. Baina gehiago zehaztu beharra ikusi da.

- Diskurtso berri bat sumatzen da, hitzez eta ekintzaz adierazi behar da.
- Euskara zerbitzu berriak sortu.
- Langileen formazioaz hitz egiten denean, Gobernuarenaz dabilela dirudi. Tokiko entitateko langileen formazioa noren esku geratzen da? Tokiko entitateen langileen formazioa diruz hornitzeko helburua jaso beharko litzateke, nahiz eta gero aurrekontuaren ikuspegitik mugak eman.
- Plantilla organikoan diagnostiko eta proposamenetatik harago joan beharko ginateke.

Sentsibilizazioa eta errealitate soziolinguistiko ezberdinak:

- Nafarroa Garaiko Hegoaldean dagoen egoera kontuan hartuz, plan estrategikoan puntu zehatzak sartzeari egungo desoreka konpontzeko.
- Gaur egungo Nafarroako eremu ez-euskalduneko sentsibilizazio berezia egin (4.2.1.4 puntu bezala). Eremu ez euskalduneko egoera esplizitatzea eta eremu horietan sentsibilitatea areagotzea.
- Arnasguneak aipatzen diren bezala, euskararen erabilera urria den eremuak ere aipatu eta babestu behar ditugu modu berezi batean. Euskara urria den eremuetan ere erreferentziak bilatu behar dira eta hori ere prestigiatu, berariazko lanaketak egin eremu horietan euskararekin eta kulturarekin lotutako gaiak indartzeko.

Euskararen Legea:

- Ez da inon agertzen eta ageri beharko litzateke, bere hutsuneak eta topeak onartu eta aldatzeko beharra azalerazi.
- Zonifikazioaren inguruko lanketarik ez da planteatzen?

Euskarabidea:

- Baliabide ekonomikoak zein humanoak behar dira. Diruz eta giza baliabideez hornitu Euskarabidea.

Plangintza:

- Ikuspegi holistikoa ematea plangintzari. Familia, hezkuntza formala (eskola), hezkuntza ez formala (eskolaz kanpoko jarduerak, aisialdia...), ez dira aparteko enteak, *continuum* gisa ikustea
- Planari zehaztapen maila falta zaio, ekintzen zerrenda ongi hornitua falta da. Orain, helburuak eta ekintzak ez dira askorik bereizten beraien artean. Horrez gain, estrategiak eta ekintzak, Nafarroako errealitate eta egoera desberdinetara egokitu behar dira, ezin da helburu orokor bat Nafarroa osorako, errealitateak ezberdinak direlako.
- Hala ere, ekintzak Nafarroako herri guztietara iritsi behar dira, hurbiltze lana egin behar dute teknikariek, bulegoetatik atera eta herrietara hurbildu.
- Sare ikuspegia interesgarria da eta elikatu beharra dago, praktika onak elkarri aurkeztuz.

- Helburuak lorgarriak behar dute eta horregatik da garrantzitsua helburuak errealitate bakoitzera egokitu eta helburu hori nola garatuko den gehiago zehaztea (ekintza zehatzak). Adierazleak eta neurtzeko sistema ere zehaztu beharra dago, eta helburu egingarri/lorgarriak planteatu, geroko frustrazioak ekiditzeko. Adb. LH euskararen eskaintza handitzea. Baina zenbat handituko dugu? orokorregia da helburua. Zenbat eta nola neurtuko dugun zehaztu.
- Lehentasunak markatu behar dira, Nafarroako hiru errealitateak kontuan hartuta.

Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Zalantza eragiten duten alderdiak:

- Baliabideak aurreikusten hasi al gara? (ekonomikoak, pertsonalak...)
- 2017-2019 epealdian hau guztia egiteko plangintza gehiago zehaztu behar da, plangintza errealagoa egin behar da, lehentasunak eta adierazleak finkatu.
- Legealdia bukatzen denean zer? Honek izango du jarraipenik? Aurreikusi beharko da Gobernua aldatzen bada, zer egin honekin guztiarekin. Edo baliabiderik ez egotekotan, zeri emango zaion lehentasuna.
- Laguntza ekonomikoa bukatuko da 2019an?
- Batzuk diote Euskararen Legeak ematen duela aukera euskara sustatzeko eremu ez euskaldunetan. Beste batzuek aldiz, esaten dute tapoi izugarria dela aitortu behar dela. Honekin lotuta, batzuek diote euskara eremu guztietan ofiziala izateko helburua jarri behar diogula gure buruari; beste batzuek diote, maximalismoetan erortzeak bere arriskua ere izan dezakeela eta ondorioz, aldaketak urriak izanik ere, horiek aitortu eta aurrerapauso bezala ikusi behar ditugula.

Bileraren balorazioa

Bakoitzak hitz batez baloratu du saioa eta saioan landutakoa:

- Lan asko dago egiteko
- Abiapuntua
- Esateko nituen gauza asko esan ditut
- Inflexio-puntua
- Itxaropena
- Hasiera
- Errealitatea
- Ez dut itxaropenik nahi, ez dut penarik nahi
- Elkarlana, elkargunea, jende ezberdina elkartzea
- Ahal dugu

- Jende berria

Eta saioaren balorazioa orokorra egiteko, balorazio-orria bete dute. Hona emaitza:

BILERAREN BALORAZIO-ORRIA (lurralde-bilerak)

BALORAZIOA				
BILERAREN ORDUTEGIA ETA IRAUPENA EGOKIAK IZAN DIRA			9	6
GAIK LANTZEKO MODUA GUSTATU ZAIT		1	7	7
BILERAREKIKO ESPEKTATIBAK BETE DIRA		2	7	5
BILERA AURRETIK JASOTAKO INFORMAZIO NAHIKOA IZAN DA	4	4	4	2
GIROA ATSEGINA IZAN DA			3	12
PLAN ESTRATEGIKORAKO EKARPEN INTERESGARRIAK EGIN DIRA			5	10
GAUZA BERRIAK IKASI DITUT	1	1	7	6
BILERAN PARTE-HARTZEAK AURRERA BEGIRAKO URRATSETARAKO MOTIBATU EGIN NAU		1	6	8
HARREMAN ETA SARE BERRIAK ERAIKI DIRA		1	9	5
BILERAN PARTE HARTZEAK ASETU NAU	1	3	3	8

EGIN NAHI DITUZUN OHARRA

- Irakasle bezala etorri naiz jakin gabe irakaskuntza/hezkuntza bilera egongo dela